


Memoria

2025

AZKUE

FUNDAZIOA





Aurkibidea

1. Agurra

2

2. Sarrera

3

3. Euskararen Etxea

4

- Euskararen Interpretazio Zentroa: Europako Kontseiluaren 2025 Museoen Saria
- “Erakusketa 360º”, bisita birtuala
- “Euskal Alien Nazioa” ihes-gela eta Hostopostoak familia-programa
- “Euskararen Etxea, plazara” erakusketa ibiltaria
- “Liburuaren Arbola” erakusketa
- Ondarearen Europako Jardunaldiak: 25. urteurrena
- Udako Programa
- Open egitasmoa
- Martxoak 8: *Aupa Maurizia!* Erakusketa

4. Zabalpena

8

- Web bisitak
- Sare sozialen jarraitzaileak
- Euskararen Etxeko zerbitzu nagusiak
 - Euskararen Interpretazio Zentroa
 - Aretoak
 - Erreserbak
 - Lantoki Kooperatiboa

5. Azkue Fundazioa

10

- Jokoteknia Bideo-jokoen Euskal Jardunaldia
- Bziber lehiaketa
- Xare Euskarazko Kultura Digitalaren Jardunaldia
- Hala, Birala! kanpusa
- Memeka meme lehiaketa
- IDE Ingurune Digitaleko Hiztegi Eleaniztuna

6. Zabalpena

13

- Web bisitak
- Sare sozialen jarraitzaileak

7. Babesletzak

14

- Ni.eus
- Ikusgela

8. Parte-hartzeak

14

AGURRA

Azkue Fundazioak **euskara esparru digitalean sustatzea du helburu**, askotariko **egitasmo digitalen bidez**.

Proiektu horietako asko lankidetzan garatzen eta abiatzen dira, Azkueren **helburu nagusienetako bat elkarlana sustatzea baita**. **Horretarako lan-sare zabal bat osatu nahi du eremu digitaleko hainbat euskal eragilerekin**.

Azkueren egitasmoak euskaldun guztien mesederako gauzatzen badira ere, **gazteak ditu jomugan**.

Hala, fundazioa betiko martxan aritu da urte osoan. Hori dela eta, eremu digitalari lotutako hainbat egitasmo egin ditu. Horrekin batera, Azkue Fundazioak Bilbon kokatutako **Euskararen Etxea kudeatzen du**.

2025ari dagokionez, berezia izan da oso, Euskararen Etxean kokatutako **Euskararen Interpretazio Zentroak (EIZ) Europako Kontseiluko Kultura Batzordeak ematen duen 2025eko museoen saria jaso duelako Estrasburgon**.

Sarrera

Euskararen Etxea Bilboko San Ignazio auzoan dago, eta 2004an sortu zen Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bilboko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren ondorioz. Egun, Azkue Fundazioak kudeatzen du.

Euskararen Etxeak erreferentzia izan nahi du euskal eragileentzat eta euskal jendartearentzat. Horretarako, hainbat zerbitzu eta bitarteko eskaintzen ditu: **Aretoen Lagapena, Lantoki Kooperatiboa eta Euskararen Interpretazio Zentroa (EIZ).**

2025ean, 8.866 lagun igaro dira Euskararen Etxetik, 2024an baino 1.015 pertsona gutxiago. Arrazoietako bat hezkuntzan gertatutako greba luzeak izan daitezke, gure bezero nagusiak ikastetxeak diren aldetik. Bestalde, banakako bisitak eta taldeen bisitak nabarmen igo dira.

Halaber, **Euskal Alien Nazioa ihes-gela eta Hostopostoak familia-programa eskaintzen jarraitu da.** Lehenengoak oso harrera ona izaten jarraitu du, baita 2025ean ere, batez ere euskaltegietako bisitarien artean. Dena dela, bi zerbitzu horien adierazleek ohartarazi digute erabiltzaile-kopuruek behera egin dutela, batez ere bigarrenak.


Lantoki Kooperatibori dagokionez, 2025ean, deialdi berri bat egin da, eta **guztira dozena bat erakunde**

ari dira lanean, haietariko batzuk berriak: **Ebete, Berbaizu eta Errigora.** Deialdi horretara aurkeztu diren eragileak co-working gunean arituko dira bi urtez, 2026tik 2027ra. Hauexek dira Lantoki Kooperatiboan lan egingo duten eragileak: **Tokikom, Euskarabentura, Emun, Garabide, Berbaizu, Errigora, Loraldia, Ebete, Ekki, Euskalpen, Taupa eta Azkue Fundazioa.**

Aretoen Lagapenaren harira, 2.617 lagunek parte hartu dute 362 jardueratan. Erabiltzaile kopuruaren adierazleak behera egin du, iaz 3.639 lagun etorri baitira, baina 2024an baino jarduera gehiago egin dira, iaz 186 jarduera izan baitziren. Hartara, erabiltzaileak gutxiago izan arren, jarduera gehiago izan dira 2025ean; hots, erabiltzaileok fidelizatuta daude, eta behin eta berriz gure aretoetara bueltatzen dira.

Azkue Fundazioari dagokionez, hainbat proiektu egin dira, gehienak gazteei zuzenduak, besteak beste, **Jokoteknia Bideo-jokoen Euskal Jardunaldia, Bziber lehiaketa, Xare Euskarazko Kultura Digitalaren Jardunaldia eta Memeka** meme lehiaketa.

Erabiltzaile kopurua urteka



Euskararen Etxea

Euskararen Etxeak Europako Kontseiluaren 2025eko Museo Onenaren saria jaso du Estrasburgon

Euskararen Etxeak 2025eko Europako Museo Onenaren Saria jaso du Estrasburgoko Europako Kontseiluko Parlamentu Biltzarreko (PACE) Kultura Batzordeak antolatutako ekitaldian.

Bertan izan dira Elixabete Etxanobe Bizkaiko Ahalduen Nagusia, Iurdana Acasuso Euskararen Etxeko zuzendaria, eta Euskara, Kultura eta Kiroleko diputatu Leixuri Arrizabalaga eta saria jaso dute batzordeko buru den Konstantinos Efstathiou-en eskutik.

1977 ezkerro, Europako Kontseiluaren Museo Saria museo bati urtero ematen zaio era aipagarrian laguntzeagatik Europako kultur ondarea ulertzen, giza eskubideen eta demokraziaren errespetua sustatzen, kultur zubiak sortzen, muga sozial eta politikoak gainditzen, egungo problema sozialei buruz bisitariak duten ezagutza eta ulermena areagotzen eta herritartasun demokratikoaren ideiak esploratzen.



“Erakusketa 360º”, bisita birtuala

Euskararen Interpretazio Zentroa norbera dagoen lekutik bisitatzeko aukera eskaintzen du Euskararen Etxeko webguneak, 360º bisita zerbitzuaren bitartez. Aukera horretan sartuz gero, bisitariak birtualki eta bere kabuz bisitatu ahal du Euskararen Interpretazio Zentroa.

Erakusketa 360º

Ezagutu erakusketaren edukia kalitatez eta xehetasunez, bista birtual digitalizatu honen bidez.

Gigapixel (bereizmen handia) teknologian esker, bisitari birtualak zooma egin eta erakusketan zehar ibiltzeko aukera irango du.



Interpretazio Zentroko erakusketaren edukia kalitatez eta xehetasunez ikusi daitezke. Gigapixel (bereizmen handia) teknologian esker, bisitari birtualak zooma egin eta erakusketan zehar ibiltzeko aukera dauka.

“Euskal Alien Nazioa” ihes-gela eta “Hostopostoak” familia programa

2021ean abiatu zen ihes-gela, eta harrezkeroztik, Euskararen Etxeak eskaintzen dituen zerbitzuen barruan finkatu da, bere harrera ona tarteko.

Parte-hartzaileek euskarari lotutako zientzia fikziozko misterioa askatu behar dute aretotik atera ahal izateko: “2155. urtean gaude. Estralurtarrak Euskal Herrira iritsi berri dira euskararekiko mirespenak itsututa. Beraien espazio-ontzia Euskal Herriko txoko guztietatik ikus daiteke. Beraien helburua argia da: euskara hartu eta beraien bizilekura eraman...”.

15 urtetik gorakoentzako ekimena da, eta ostegun, ostiral eta larunbat arratsaldeetan eskaintzen da.


* Taldeak: 39

Parte-hartzaileak: 225 pertsona

Horrekin batera, Euskararen Etxeak **“Hostopostoak”** familia-programa ere eskaintzen jarraitzen du: sei eta hamar urte bitarteko umeek parte hartzeko proposamen dibertigarri bezain hezigarria da Hostopostoak. Ekimenaren helburua euskaraz eta familian edo taldean jolastea da. Horretarako, mahai-jolas erraldoi bat erabiltzen da. Hostopostoetan, aurtan 22 lagunek parte hartu dute.

*** Parte-hartzaileak: 22 haur eta heldu**
Saioak: 2

“Euskararen Etxea, plazara” erakusketa ibiltaria



Euskararen Etxea, plazara erakusketaren bidez, Euskararen Etxeak bere hormak gainditu eta Interpretazio Zentro berriaren edukien lagin txiki bat aurkeztu nahi du, eta herritarrak bere egoitzara hurbiltzera gonbidatu nahi ditu, bisita sentzorial eta ludiko batetik abiatuta, bisitariak euskararen izaera poliedrikoan murgildu daitezzen.

Euskararen Etxea, plazara erakusketaren helburua da euskara, antzinako hizkuntza izateaz gain, gaztea, zirrargarria eta eraikitzen ari den hizkuntza dela ezagutaraztea, baita munduko hizkuntza-aniztasunaren parte dela ere nabarmentzea.

Horretarako, erakusketak askotariko edukiak biltzen ditu, besteak beste, euskararen egunez eguneko egoeraz ohartarazten duten datuak, euskararen historia josi duten pertsonaia eta gertaerak, euskararen etorkizunerako erronkak edo euskal kulturaren aberastasuna eta kalitatea islatzen duten edukiak.

2025ean ondoko ibilbidea egin du erakusketak:

- Deustuko Unibertsitatea: maiatzaren 14tik ekainaren 27ra
- BAM Magisteritza Eskola: irailaren 30etik abenduaren 2ra
- Mondragon Unibertsitatea: Abenduaren 9tik 19ra

“Liburuaren Arbola” erakusketa

Euskararen Etxeak gure hizkuntzaren inguruan topalekua, lan kooperatiborako zentroa eta laborategia izatea du helburutzat.

Hala, *Liburuaren arbola* erakusketa ibiltaria prestatu zuen 2022an, eta 2025ean bere ibilbidea egiten jarraitu du:

- Iruñea (Hizkuntza Eskola Ofizialeko areto Nagusia): urtarrilaren 14tik 23ra
- Elorrio (Udal Liburutegia): martxoaren 31tik apirilaren 25era
- Donostia (Okendo Kultur Etxea): 2025eko azaroaren 11tik 2026ko urtarrilaren 10era

Erakusketak liburuaren izaera azaltzen du: hizkia, idazketa, diseinua, inprimaketa. Bisitariak ezagutzen du hizkiek nolako anatomia daukaten, testuek nolako formak hartzen dituzten, liburuak zein parte dauzkan eta nola izendatzen ditugun euskaraz.

Gorka Arrese editoreak apailatu du erakusketa, eta hitzaldi bana egin du udalerrri horietako bakoitzean.



Erakusketaren helburuak:

- Liburua berez zer den ezagutzea, ulertzea eta bere garrantzia azpimarratzea.
- Liburuaren zati nagusiak identifikatzea: letraren anatomia, testuaren fisiologia eta liburuaren biologia.
- Liburuan parte hartzen duten eragileak aztertzea: idazlea, editorea, irakurlea, inprimategia.
- Euskal literaturara eta liburugintzara gerturatzea, Bizkaikoari bereziki erreparatuz.



Euskararen Etxeak Bizkaiko Ondarearen Europako Jardunaldien 25. urteurrenean parte hartu du

Bizkaiko Foru Aldundiak Ondarearen Europako Jardunaldien 25. edizioa antolatu du urrian. Hala, urrian zehar, 160 erakundek (54 udal, 79 kultura-entitate, 27 museo) antolatutako 250 kultura-jarduera izan dira, betiere Bizkaiko arkitektura-ondarea herritarrengana hurbiltzeko asmoz.



Ondarearen Europako Jardunaldiek gizartea sentibilizatu nahi dute kultura-ondarea ezagutzeak, baloratzeak eta babesteak duen garrantziaz. Edizio honetako formaturik ohikoena ibilbide gidatuak izan dira, udalerri bakar batetik edo hainbat herri lotuz egin direnak. Bide eta galtzada zaharretan zehar, baserriak, zubiak, ermitak, errotak eta burdinolak, kargategiak... bisitatu dira. Gainera, hitzaldiak eta solasaldiak, liburuen aurkezpenak, dokumentalen proiektzioak, kontzertu didaktikoak, tailerrak eta erakusketak egin dira.

Euskararen Etxeak ere jardunaldi horietan parte hartu du: urriaren 17an, familiei zuzendutako Komunitatea Eraikiz izenburuko tailerra izan da: "komunitatea landuko dugu, jolasa eta arkitekturaren bitartez. Criaturas Infinitas kolektiboaren lantegiak irudimena, pentsamendu kritikoa eta arazoaren konponbidea sustatzen ditu". Lantegian 15 lagunek parte hartu dute, gazte eta heldu.

"Euskararen Interpretazio Zentroan, udan, hitz eta jolas!": haurrentzako egonaldia



Egonaldian, Euskararen Interpretazio Zentroan bildutako edukiak landu dira; betiere, umeen adin-tarteetara egokituak, eta modu ludiko eta dibertigarrian jorratzeko moduan. Antzerkia, hitz-jolasak, dantza, kantagintza, eta oro har euskararekin eta sormenarekin lotutako hainbat jardueratan parte hartu dute haurrek.

Sei eta hamar urte bitarteko 45 umek parte hartu dute bost egunetan goizez egin diren hiru egonalditan.

Euskararen Etxeak Bilboko Open ekimen arkitektonikoan parte hartu du

Open egitasmoaren barruan bisitatu den eraikinetako bat izan da Euskararen Etxea; Open irailaren 29tik urriaren 5era egin da, eta guztira, 89 eraikin bisitatu dituzte herritarrek, hiri-diseinu eta -garapeneko eraikin enblematikoak eta jardunbide egokiak ezagutu ditzaten.

Euskararen Etxera, hain zuzen, urriaren 4an etorri dira bisitariak: guztira 11 pertsona etorri dira gurera.

Euskararen Etxeko eraikinari dagokionez, Euskararen Etxea 2004an inauguratu zen, euskal gizartean hizkuntza sustatzeko eta zaintzeko erreferente izateko helburuarekin. Eraikina 50eko hamarkadan eraiki zen, frankismo garaian. Besteak beste, bertan Euskararen Interpretazio Zentroa kokatzen da, zeinak euskararen bizi-indarra eta aniztasuna transmititu nahi dituen. Halaber, inplikazio pertsonala aldarrikatzen du, norberak egin baitio ekarpena euskarari. Azken batean, euskararen askotariko izaerak batu egiten gaitu, gehitu egiten du.



Martxoak 8: “Aupa Maurizia!” erakusketa

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, Maurizia Aldeiturriaga Zabala trikiti musikako pandero jotzaile eta abeslariari buruzko erakusketa egin da Euskararen Etxean, martxoaren 8tik aurrera.

Horrekin batera, euskal musikari eta emakumearen inguruko kanpaina parte-hartzaile bat ere abiatu da sare sozialetan.



Zabalpena

Web bisitak:

Erabiltzaileak:	Saioak:	Ikustaldiak:
44.000	16.000	29.000

Sare sozialak:



X: 1.439 jarraitzaile



Facebook: 540 jarraitzaile



Instagram: 1.744 jarraitzaile



Mastodon: 266 jarraitzaile

Euskararen Etxeko zerbitzu nagusiak

Euskararen Interpretazio Zentroa dago gurean. Halaber, etxeak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu euskararen alde eta euskaraz jarduten duten eragileentzat.

Euskararen Interpretazio Zentroa (EIZ):

Euskararen historiari eta egoerari buruzko informazio interesgarri bezain baliagarria aurki daiteke EIZn. Bisitak aurrez aurrekoak dira, eta ikastetxe, talde eta norbanakoei zuzenduta daude.

IKASTETXEAK

- Pertsonak: 4.005
- Taldeak: 194
- Ikastetxeak: 72

TALDEAK

- Pertsonak: 1.483
- Taldeak: 122
- Entitateak/Ekarteak: 71

NORBANAKOAK

- Pertsonak: 543
- Bisita gidatuak: 163
- Bisitari libreak: 380

Aretoen lagapena:

Euskara helburu edo misio duten entitate eta elkarteentzako aretoak dira, besteak beste, aurkezpen, prestakuntza edota bileretarako balia daitezkeenak. Espazioen erabilera doakoa da eta erreserba egitea ezinbestekoa da.

Espazioak erreserbatu dituzten taldeak askotarikoak izan dira, tartean, **Bai&By, Berritzegune Nagusia, Aiko Kantu Eskola, Bizkaiko Foru Aldundia, Gabriel Aresti Euskaltegia, Tokikom, EIZIE, Kukulaisi, Garabide, HABE, EKEA, EIE, Alkarbide eta Gertu Kultura.**

- Parte-hartzaileak: **2.617**
- Entitateak/Elkarteak: **47**
- Jarduerak: **362 ekintza (17 berri)**

Lantoki kooperatiboa:


Lantoki Kooperatiboa euskara helburu edo misio duten entitate, elkarte edota norbanakoen gunea da.

2025ean, deialdi berri bat egin da, eta guztira dozena bat erakunde ari dira lanean 2026ko urtariletik, haietariko batzuk berriak: **Ebete, Berbaizu eta Errigora.**

Hauexek dira co-working-a betetzen duten eragileak:



Erreserba motak:



Azkue Fundazioa

Bideojokogintzaren hainbat alde aztertu dituzte Jokoteknia jardunaldian, eta azken hiru edizioetako edukiak biltzen dituen liburua argitaratu da (1)

Jokoteknia Bideojokoen Euskal Jardunaldiaren xedea da euskara eta bideojokoak uztartzea eta euskal bideojoko zaleen komunitatea sortzea; **Game Erauntsia** elkarrearekin egiten da lankidetzan. 2025ekoa **zortzigarren edizioa** izan da, azaroaren 15ean, Euskararen Etxean egingo da.

Lau hitzaldi eta mahai ingurua eskaini dira euskal bideojokogintzaren esparru anitzak aztertzeko asmoz. Bideojokoen sorkuntza aztertu da talde hasiberri baten begiradatik; hizkuntzari lotuta, itzulpengintza prozesuan barneratzeko aukera egon da, kasu honetan, Nintendo-ren lokalizazio ekoizleetako baten ibilbidea ezagutuz; gainera, rol jokoek bideojokoekin izan dezaketen harremana aurkeztu da, mahai-jokoetatik hasita, bideojokoetaraino eman daitekeen bidaia biziz; bukatzeko, marrazkigintzaren eta artearen esparruetan barneratu dira hurreratu direnak.

- Mahai-ingurua ere izan da Digipen Europe-Bilbao Institute of Technology-ko, Harrobia Ikastolako eta Tartanga Lan Heziketarako Zentro Integratuko ikasleen parte hartzearekin.
- Gamer Gela ere izan da.
- Jardunaldia zuzeneko streaming bidez jarraitzeko aukera egon da EITBren webgunetik zein YouTube plataformatik.

Bideojokoei lotutako denetariko gaiak aurkeztea eta horien inguruan hausnartzea izan da helburua.

Azkenik, 2021, 2022 nahiz 2023 edizioetako hitzaldiak biltzen dituen Jokotekniaren bigarren liburua ere aurkeztu da.

TikTok sarean oinarritutako Bziber lehiaketa (2)

13 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako lehiaketa apirilaren 7tik maiatzaren 1era bitartean egin da. Lorea Intxausti izan da erronka sortzailea eta astelehenero erronka bat argitaratu du.

Edizio honetan ere gazteek haien sormena eta gaitasunak erakutsi dituzte. Honela, 13 eta 16 urte bitarteko gazteek nahi beste erronkak egin dituzte, baita nahi beste aldiz ere.

Beste aktore batzuk ere egon dira erronkak egiten gazteekin batera: Nahia Sillero (@nahiasillero) eta Ainhoa Azpitarte (@azpitarteainhoa) Irabazi arte telesailako aktoreak eta Kimetz Etxabe (@etxabekimetz) Go!azen telesailako Gontzal pertsonaia.

Lehiaketak **105.672 ikustaldi** izan ditu.

- * Atsegin dut: **5.483**
Partekatzeak: **330**
Gordetakoak: **252**
Iruzkinak: **130**
Erronkak: **20 partaidek 52 erronka** egin dituzte.



(1)



(2)

(3)

Xare Euskarazko Kultura Digitalaren Jardunaldiaren bi hitzordu izan dira, Barakaldon eta Amorebieta-Etxanon (3)

Bigarren Hezkuntzako 400 ikasle inguruk parte hartu dute Barakaldoko Clara Campoamor Zentro Zibikoan eta Amorebieta-Etxanoko Zelaieta Zentroan egindako bi jardunaldietan.

Egitasmoa Azkue Fundazioak antolatu du, Eusko Jaurlaritzaren, eta Barakaldoko eta Amorebieta-Etxanoko Udalen laguntzaz. Xare jardunaldiaren helburua hau da: Euskarazko unibertso digitala sustatzea gazteen artean.

Jardunaldietan ondoko edukiak prestatu dira: 7 lantegi praktiko, 2 hitzaldi interaktibo, *Memeka* lehiaketaren aurkezpena eta *Egunean Behin* jokoaren zuzeneko partida kolektiboa, Zainduz Saretu sare sozialei buruzko ihes jokia, zozketak eta Sara Zozaya-ren kontzertua.

“Hala, birala!” lau eguneko kultura digitalari buruzko kanpusak egin dira Bilboko Udalarekin lankidetzan (4)

Bilboko Udalarekin lankidetzan ondutako lau eguneko kanpusetan honako gaiak landu dira: stop motion animazio-teknika, euskarazko bideojokoak, sare sozialen inguruko erabilera eta jokabide egokiak, bideoen edizioa eta argazkigintza.

2012 - 2013 urteen artean jaiotako 41 umek parte hartu dute ekimenean, 29k udaberriko oporraldian eta 12k abenduko oporraldian.

Memeka lehiaketa (5)

Memeka gazteei zuzendutako euskarazko meme lehiaketa da, Azkue Fundazioak eta Iametzaren enpresak antolatua. Egitasmoa 2024an abiatu zen, eta harrera ona izan zuen gazteen artean; beraz, 2025ean bigarren edizioa abiatu da.

Gazteek haien sormena euskaraz adierazteko aukera izan dute modu umoretsu eta ludikoan: www.memeka.eus.

Egitasmoaren helburua ez da soilik gazteei entretenimendurako gunea eskaintzea, baizik eta plataforma digitaletan euskararen erabilera aktiboa sustatzea ere, modu dibertigarri eta erakargarrian.

Guztira, 60 parte-hartzailek egindako 205 meme jaso dira ekimenean.

IDE Ingurune Digitaleko Hiztegi Eleaniztuna (6)

Ingurune Digitaleko Hiztegi Eleaniztuna ide.eus webgunean dago kontsultagai. Kontzeptuen terminoak lau hizkuntzatan bila daitezke: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingeleza.

2025ean, hiztegia aberasten jarraitu ordez, bide berri bati ekitea proposatu du Elhuyarrek. Erabiltzaileak erakartzeko eta hiztegiaren ikusgarritasuna areagotzeko asmoarekin IDE hiztegiaren inguruko joko bat planteatu da, hiztegiko kontzeptuak eta horien definizioak oinarri dituen. Batetik, kontzeptu bat emanda, dagokion definizioarekin lotu beharko ditu erabiltzaileak. Bestetik, definizio bat emango zaio erabiltzaileari eta zein kontzepturekin lotzekoa den asmatu beharko du.



(3)



(4)



(5)



(6)

Zabalpena

Web bisitak:

www.azkuefundazioa.eus webguneak

Erabiltzaileak:

5.300

Saioak:

3.400

Ikustaldiak:

3.800

Sare sozialak:



X: **7.832** jarraitzaile




Instagram: **5.152** jarraitzaile



Facebook: **5.828** jarraitzaile



Mastodon: **397** jarraitzaile



Babesletzak

Ni.eus

PuntuEUS Fundazioak lametza euskal enpresarekin batera sortutako euskarazko posta elektronikoko zerbitzua da. Bere helburua da edozein pertsonari bere komunikazio digitaletan .EUS domeinua erabiltzeko aukera ematea, baita webgune propiorik ez badu ere. Azkue Fundazioak egitasmo hau babesten du.

- * **Informazio gehiago:**
<https://badator.ni.eus/>

Ikusgela

Euskarazko bideo pedagogiko libreen (filosofia, ekonomia, historia, matematika...) erreferentziazko proiektua izan nahi du, eta idatzizko Wikipedia bideoz hornitzea du xede. Euskal Wikilarien Kultura Elkartek zuzendutako egitasmoa da.

- * **Informazio gehiago:**
<https://wikimedia.eus/ikusgela>

2025 urtean 76 bideo argitaratu dituzte, zazpi sailetan banatuta: Filosofia, Erronka digitalak, Gure arbasoak, Literatura unibertsala, Historia, Zortziko txikian eta Zergatik gertatzen dira gauzak?

Argitaratutako guztia batuta, 351 minutu eduki berri sortu dituzte, ia sei ordu.

Parte-hartzeak

- Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Bizia Batzordeko kide.



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE



Deusto
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea



Universidad
del País Vasco
Euskal Herriko
Unibertsitatea

